

Irakurle gehiago liburutegian

Mailegu gutxiago
izan da ▶ 6



Juan Joxe Agirre fraide beneditarra kargurik gabe aske utzi dute

ETA ▶ Guardia Zibilak Lazkaoko
komentuan atxilotu eta galdekatu
zuen ETArekin zerikusia zuelakoan

ALEGIA ▶ Alegiarrak dena ukatu
zuen; jende ugari agertu zen
babesa azaltzera ▶ 5



Juan Jose Agirre alegiarra. HITZA

IMANOL GARCIA



Aparkaleku batzuk tren geltokiaren ondoan

ZIZURKIL ▶ Udalak
egingo ditu Eusko
Jaurlaritzaren Izartu
laguntzekin ▶ 4

TOLOSA ▶

Nesken futbol taldea igoera fasean ari da ▶ 2

LEITZA ▶

Udalak ia 2,5 milioi euroko aurrekontua onartu du 2005erako

Erletako parkea, hartzaindegiko jangela, edukinontzi
berriak eta bestelako inbertsioak egiteko asmoa dute;
UPN kontra agertu da «Larrainek parte hartu duelako» ▶ 7

- **Hizkuntzak:**
 - ★Arabiera ★ Erdera (atzerritarrentzat) ★ Italliera
 - ★ Euskera ★ Frantsesa ★ Ingelera ★ Itzulpenak
- **Maila guztiak, irakasle natibo eta kualifikatuak**
- **Lehen hezkuntzatik batxilergora bitarteko ikastaroak:**
 - ★ Mate ★ Fisika ★ Kimika ★ eta abar
- **Goiz, arratsalde eta larunbatetan**

Pausoka Akademia

M.J Iraola, 2 behea • TOLOSA • mug.: 686971962 • Tel.: 943672448

GIZARTEA ▶

Zergen eta tasen gainean, triptikoa

Udalak herriko etxe guztietara banatu du aurtengo egutegi fiskala

I. ETXEBESTE

Tolosako etxe guztietara banatu du Udalak aurtengo egutegi fiskala. Udalbatzak egin du lehendabizikoz, bizilagun guztiei dituzten zergak eta tasak ordaintzeko aukerei buruz nahiz salbuespenak eta hobariak jasotzeko dituzten aukereen berri ematearren.

Triptiko bat da informazio hori barreiatzeko hautatu duten sistema, eta etxe guztietako postontzietan sartu dute; «hor azalduko dira zergen eta tasen zerrendak, prestatutako zerbi-

tzuen arabera». Triptiko horretan jakinarazi dituzte udal agintariek, halaber, «nahiko aurrerapenez, aldizkakoak diren zergak noiz ordaindu behar diren, eta, salbuespenak eta hobariak noiz eskatu behar diren.

Triptiko horrek abantaila ugari eskaintzen dituela irizten diote udal arduradunek. Zergadunei ordainagiriak helbideratuz Udalak berak ere «erosotasuna eta kostuen murrizketa» lortzen du, izan ere. Horrekin batera, harremanetarako telefonoen eta web orrial-

deetako helbideen berri ere ematen du triptikoak: «Horren bitartez, hiritar bakoitzak informazio gehiago eskuratu ahal izango du, eta herriko betekizun fiskaletan egunean egoteko aukera ere izango du».

Hobarien artean aipatzekoa da Ondare Higiezin gainera Zerga (OHZ) ordaintzerakoan hiru seme-alaba baino gehiago dituzten familiei %50 murriztu ahal izango zaiela, «balio kastastrala 82.895 euro artekoa denean, betiere». Era berean, Ibilgailuen Zergaren ordaintzatik salbuesita geratzen dira

«minusbaliotasunen bat duten pertsonak, eta «%100eko murrizketa egingo zaie zabor bilketaren zergan lanbide arteko gutxieneko soldataren azpiko diru-sarrerak dituzten zergadunei, eta, baita ere, Gizarteko Bazterkeriaren aurkako Planaren onuradun direnei».

Borondatezko epearen barruan egiten diren ordaintzei dagokienez, Ibilgailuen Zerga ordaindu behar dutenek martxoaren 1a eta apirilaren 8a bitartean egin beharko dute ordaintzea, eta Ondare Higiezin gainera Zerga maiztaren 16a eta ekainaren 30a artean. Azkenik, zabor bilketaren tasaren ordaintzea ekainaren 1a eta uztailaren 8a bitartean egin beharko dute hala dagokien tolosarrek.

FUTBOLA ▶

Igoera fasean bikain ari dira Tolosa CFkoak

Berdindu egin dute jokaturako partidu bakarra Orejaren eta Mujikaren neskek

IRATXE ETXEBESTE

Tolosa CFko neskek gobera fasean dira. Joan diren bost urtetan lehendabizikoz lortu dute gobera faseko partiduak jokatzea, eta gustura dira oraingoz lortu dutenarekin. Izan ere, irailen hasi eta urtarrila bitartean Lurraldeko Mailan jardun dute Tolosa CFkoek. Zortzikoko talde batean, lehen lau postuen artean sailkatzea zuten helburu hasieran, eta jadanik lortua dute helburu hori. Ligako azken partiduan sailkatu ziren azkenean.

Urtarrilaren 16an jokatu zuten Ligako azken partidu hura, Luberriren kontra, Alegian. «Partidu gogorra izan zen, bi taldeek asko gurelako jokoa», diote Iñaki Oreja eta Iñaki Mujika entrenatzaileek. Do-

nostiarrek irabaziz gero sailkapeneko lehen postuan amaitzen zuten Liga, eta tolosarrek, berriz, beharrezko zuten garai-pena, edo, gutxienez, berdinketa, gobera faserako sailkatzeko, Vasconia bi puntutara baino ez zutelako atzetik. «Gogorra izan zen oso, Vasconia-koak bertara joan zirelako eta garrasika eta irainka hasi. Azkenean, ordea, 2-0 irabazi genuen, Ainitzeren eta Ane Alonsoren golekina».

Bada atsedenik gabe hasi dute Tolosa CFkoek gobera fasea. «Taldea zaila egokitu zaigu, eta ligaxka horretatik lehendabiziko sailkatzen den taldea baino ez da pasatzen hurrengo faserara». Mondragonen, Almen Aretxabaletaren, Luberriren, Intxaurdiren, Beti Onaren, Mutrikuren eta Zumaiaikoren aurka aritutakoan amaituko da lehen fasea tolosarrentzat.

Horietatik, partidu bakarra jokatu dute Orejaren eta Mujikaren neskek oraingoz. Arratsen izan zuten lehena, eta bina berdindu zuen Mondragonen aurka. Bi taldeentzat gol kopuru bera izanagatik, joko ez zela batera parekatua izan dute entrenatzaileek. Ura-



Tolosakoak, jokaturako azken partidaren ostean ateratako irudia. HITZA

ren ondorioz, egoera txarrean zuten futbol zelaia, gainera, eta horrek ez zien batera mesederik egin tolosarrei. «Mondragoneko neskei haien taldeko lehen postuan sailkatzea eman duen handiustea nabari zitzaie, eta gure jokalariek, berriz, umil-umil ziren, argi zutelako talde on baten aurka ari zirela». Partidua hasi eta berehala garbi geratu zen, entrenatzaileen hitzetan, arrasatearrek hautaturako jokoak: aurrelari asko eta hutsik egiten ez zuen atezaina. «Tolosako taldea berdinduagoa zegoen maila guztietan». Atzelariak sendo aritu ziren, zelai erdian guztiak langile, baloia behin eta berriz aurrera bidaliz eta aurrelariak, etengabe, baloi guztien bila. Lan bikaina eginda eta batera galdu gabe itzuli ziren etxera lehen norgehiagoka hartatik.

Almen Aretxabaletaren kontra zuten hurrengo tolosarrek, baina elurra zela eta bertan behera geratu zen neurketa, eta aurrerago jokatu dute hori. Datorren jardunaldia bi-

har bertan izango dute, Alegian, 11:45ean, Intxaurdiren aurka. Tolosako jokalariek eta entrenatzaileak gogotsu dira neurketa horretarako, Inauteriak pasatu berri diren arren, lanera irtengo dutelako zelaira.

«Guretzat berria da hau dena», diote Oreja eta Mujika: «Hasiera-hasierako helburua zen gobera faserara heltzea, eta behin hori bete dugula ikusita, partiduz partidu joango gara ikusten nola ateratzen diren guztiak». Hala eta guztiz ere, ez dute etsitzeko asmorik, eta ahalik eta ongien jardungo dutela diote, «aurrera begiratuz, eta orain arte lortu dugunarekin konformatu gabe».

Tolosa CFko neskei Ligako bigarren itzulia «pisutsua eta luzea» egingo zitzaie uste zuten hasiera batean entrenatzaileek, baina «juxtu kontrakoa» izaten ari dela esan dute. Jokalariek, izan ere, «oso gustura ari dira egunegun entrenatzen», eta entrenatzaileak ere harro daude haiek egiten ari diren lanaz.

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernalde.

Medikua: 65 23 39

Asteasu. Medikua: 69 24 23**Berastegi-Elduain.** Medikua: 68 33 61**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411**Leitza.** Osasun z.: 948 510800**Lizartza.** Medikua: 68 20 77**Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 00 68 00

▶ Gernikako arbola: 00 69 00

▶ Amaroako dispen.: 67 26 37

▶ Asunzion klinika 67 57 99 -

67 53 90 (larrialdia)

▶ Udaltzaingoa: 67 58 58

▶ Tolargi: 65 00 16

▶ Iurrarendi egoitza: 67 03 25

▶ DYA: 67 25 36

▶ Gurutze Gorria: 67 48 88

▶ Ertzaintza: 53 88 20

▶ Tolosa gasa: 67 53 20

Villabona-Aiztondo.

Anbulatorioa: 00 69 70

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89

▶ Donostiako autobusa: 36 17 40

▶ Tolosaldea bus: 65 06 21

▶ Leitzaeran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 67 04 20

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Santa Maria, I. Nafarroa etor., 2 (Tolosa). 943 65 46 10.
Larraia. Elbarren, 95 (Leitza). 112

TOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.

tolosaldean_publici@tolosaldeko hitza.info

Tolosa. 687 41 00 82 -

687 41 00 33.

tolosa@tolosaldeko hitza.info

Villabona-Aizt. 687 41 00 22.

villabona-aiztondo@tolosaldeko hitza.info

Anoeta-Eldea. 687 41 00 22

anoetaeldea@tolosaldeko hitza.info

Ibarraldea. 687 41 00 32.

ibarraldea@tolosaldeko hitza.info

Alegialdea. 687 41 00 34.

alegialdea@tolosaldeko hitza.info

Leitzalde. 687 41 01 18.

leitzalde@tolosaldeko hitza.info

iragarki laburrak ▶

SALGAI

Etxebizitza. Ongi egokitutako etxe handia salgai Leitza 34 milioitan. Tel: 948 610 659.

Autoa. Peugeot 206 XS 1400

autoa salgai. Gasolina.

Telefonoa: 626 43 26 26.

LANA

Tolosan. Etxeko lanak egiteko emakume bat behar da. Lan ordutegia: 18:30etik 21:30era.

Deitu: 645 008 081.

INAUTERIAK ▶



Musika Eskolako konpartsa kalejiran aterako da bihar, estreinakoz. HITZA

Inauteri doinu alaiak Piñata igandean

Poca Tripa txaranga, Amaroako taldea eta Txilaba elkartearen konpartsa lurreamendira joango dira bihar

LEIRE MONTES

Inauteriak amaitu berri dira, baina tolosar askok ez dituzte egun horiek oraindik ahaztu nahi. Bihar, Piñata igandean, txaranga doinuez, kolore biziez eta umore onez gozatzeko auker izango da, berriz ere.

Urtero moduan, herriko hainbat taldek lurreamendiko egoitzara eramango dituzte Inauterietako azkenekoak: aurtent, Poca Tripa txaranga, Txilaba elkartearen konpartsa eta Amaro auzoko taldea joango dira lurreamendira, goizean.

Musika Eskolako kalejira

Eduardo Mokoroa musika eskolakoek ere, aurtent lehendabiziko aldiz, parte hartuko dute Piñata igandeko ekitaldian. 40 bat ikaslek, txikiak eta helduek, tirolesen konpartsa aterako dute. Haize eta metal taldekoak dira: tronpak, tronpetak, bonbardinoak, tronboiak eta tubak. Besteak beste, mar-

txak, balsak eta polkak joko dituzte. Alde Zaharreko kaleetan ariko dira, 11:30etik aurrera.

Inauterietako hainbat ohar

Bihar bertan ere argitaratuko ditu Hirzak karroza eta konpartsa lehiaketaren saridunen izenak. Asteazkenean, hilaren 16an, izango da sari banaketa ekitaldia, 19:00etan, udaletxe-ko batzar aretoan.

Ferialekuan karrozak eta plataformak dituztenek aste honetan desmontatu behar dituzte, eta datorren urterako balio ez duena bertan dagoen zakar muntora bota. Gordetzeko tokia dutenek karroza edo plataforma Ferialekutik atera behar dute. Udalak gordetzea nahi dutenek, berriz, plataforma garbia, datorren urterako gorde nahi den materiala gainean duela, bertan utzi behar dute; jabearen izena eta telefonoa paper handi batean jarri behar dituzte, erraz ikusten den tokian.

GIZARTEA ▶

Angel Martinez, Harizpeko lehendakari

Harizpe jubilatuta eta pentsiodunen elkartearen zuzendaritza berria aukeratu dute; hemendik aurrera, Angel Martinez izango da lehendakari. Felix Antolin da lehendakariorde berria, Wenceslao Jimenez idazkaria, eta Jose Manuel Ortiz diruzaina. Jose Luis Abarrategi, Valeriano Herrero, Esther Razkin, Angel Izagirre, Leandro Uranga, Arantxa Aizpurua eta Ignacio Goikoe-txea izango dira orain batzordekideak.

DEIALDIA ▶

Batzar irekia, Gerontologikoaz

Tolosako Zentro Gerontologikoaren aferan kaltetutakoen aldeko plataformak asanbladara deitu du astelehenerako, hilaren 14a. Bilera egingo dute, arratsaldeko zazpitan, Kultur Etxean. Batzar irekia dela azpimurratu dute taldekoek, eta «herritar guztiei» egin diete bertara joateko gonbita.

ESKIA ▶

Benasquera autobusa Alpino Uzturrek

Alpino Uzturre mendi elkar-teak Benasquera (Huesca, Espainia) joateko autobusa antolatuta du hilaren 26-27rako. Aneto mendiaren magalean, Llanos del Hospital inguruko iraupen eskiko pistan ariko dira larunbatean. Igandean, berriz, Plan d'Estan izeneko proba herrikoian parte hartzeko aukera izango dute. Izen-ema-tea zabalik da dagoeneko elkartearen (Gudari 5, behea. 943 65 27 89), 19:30etik 18:30era, astelehenetik ostegunera.

HEZKUNTZA ▶

Gurasoak informatzeko bilera Orixen

2005-06 ikasturtean DBHko 1. mailan hasiko diren ikasle-entzuzat bilera antolatu dute Orixe institutuan. Seme-alabek hasiko duten etapa berriaren ezaggarriak azalduko dituzte. Asteartean, hilaren 15an, da hitzorduan, 17:00etan. Astelehenean, bestalde, *Heziketa XXI. mendean* hitzaldia eskainiko du Maribel San Sebastian psikologoak, 18:30ean. DBHko 1., 2. eta 3. mailako ikasleentzuzat gurasoei dago zuzenduta saioa.

IKASTAROAK ▶

Eskulanak eta estanpaketa-grabatu ikastaroak

ERREDAKZIOA

Astelehenetik aurrera helduentzat bi ikastaro berri eskainiko dituzte Kultur Etxean: eskulanak eta estanpaketa eta grabatu linoleoan. Eskulan ikastaroan teknika ugari landuko dituzte ikasleek: pintura telan eta egurrean, *tiffany*, pintura beiran, jaiotzak, pastak, koloreko harez egindako koa-droak... Astelehenean eta asteazkenean emango dira eskolak, 18:00etatik 20:00etara. Ekainaren 22an amaituko da ikastaroa, eta 100 euroko prezioa du. Estanpaketa eta grabatu linoleoan ikastaroa ere astelehenean hasiko da, eta ekainaren 22an amaitu. Azetako, kartoi edo kartulina plantila bidezko estanpaketa, zigilu bidezko estanpaketa eta grabatu linoleoan edota egurrean landuko dituzte. Asteazkenean emango dira eskolak, 18:30etik 20:30era. 50 euro balio du.

Izena emateko aukera bada-gor oraindik, Kultur Etxean (943 67 03 83), astegunetik, 09:30etik 13:30era eta 17:00etatik 19:00etara (ostiraletan goizez).

KZGUNEA ▶

Mikroenpresa eta autonomoei zuzendutako ikastaroa

ERREDAKZIOA

Mikroenpresa eta autonomoei zuzendutako doako saioak antolatuta dituzte KZgunean (Gorosabel). Asteazkenean, internet bidez tentsio baxuko boletinak nola egin irakatsiko dute, 17:00etan.



Manifestazioa. NOELIA LATABURU

HITZALDIA ▶

Bularreko minbizia hizpide, Kultur Etxean

Katxalin, Bularreko eta Ginekologiako Minbizia duten Emakumeen Elkarteak antolatuta, Udaleko Osasun eta Gizarte Zerbitzuetako departamenduaren laguntzarekin, *Bularreko minbizia goiz detektatzea* izeneko hitzaldia izango da asteartean, 18:00etan, Kultur Etxean. Adu baten azalpenak entzuteko aukera izango dute bertara joaten direnek: Donostiako Institutu Onkologikoko Lourdes Ariziturri doktoreak eskainiko du saioa.

hitza

txokoa^{lagunen}

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ **GORROTXATEGI Edertasun Zentruak** oparitutako

- LPG (loditasuna tratatzeko saioa) edo
- Laser bidezko depilazio saioaren

irabazle den harpidedun laguntzailea:

JUAN JOSE GOROSTEGI ESNAOLA (TOLOSA)

Gorrotxategi
Nagusia, 2 - 1. • TOLOSA
Tel.: 943 67 57 39

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

ZIZURKIL ▶ HIRIGINTZA



Tren geltokiaren ondoan dagoen lursaila; bertako biltegia eta dorretxoak kendu egingo dira. I. GARCIA

Tren geltokiaren ondoan aparkalekuak egingo ditu Udalak

Izartu programaren baitan Eusko Jaurlaritzatik jasotako diru laguntzekin egingo den lehenengo proiektua izango da

IMANOL GARCIA

Datozen lau urteetan Zizurkilgo herriak aldaketa nabarmenak izango ditu Oriai ibaiaren ondoko auzoetan. Villabonarekin batera Eusko Jaurlaritzarekin bildu da eta Izartu programaren baitan Oriai ibaiaren ibarrean hobekuntzak egiteko diru laguntzak eskatu dituzte.

Eusko Jaurlaritzak Izartu programaren bidez diru laguntzak ematen dizkie herriei andeatuta dauden zonaldeak zaharberritzeko asmoarekin.

«Oso garrantzitsua da lortu dugun diru laguntza», azaldu dio Marian Lazkano alkateak HITZARI. «Bi udalak asko inplikatu gara proiektu honetan eta lortutako laguntza horrekin beharrezko diren hainbat lan aurrera ateratzea izango dugu».

Aurten egingo den lehenengo ekimena tren geltoki ondoan sailean aparkalekuak egitea izango da. «Egun aparkalekuak beharrezkoak dira herri guztietan», azaltzen du Lazkanok. «Gainera, Ubare auzoko

biztanleak kexu dira, hain gertu izanda, Villabonatik jende ugari bertan aparkatzen duelako». Programa honen baitan hurrengo urteetan Ubaren eta Aurreran egingo diren lanak direla eta sortuko dituen aparkaleku arazoengatik, lehenengo ekimena geltoki ondoan aparkaleku berriak egitea erabaki du Udalak.

50 plaza inguru

Renferekin hitzarmena sinatu du Udalak eta tren enpresak

lurrak utzi dizkio Udalari. Orain dagoen biltegia eta dorretxoak kenduko dira eta Renfek eskatu duen bezala, hesi baten bidez aparkalekutik trenbiderako pasoa itxita egongo da.

Guztira 40 edo 50 ibilgailurantzako lekua izango da. Udalaren hurrengo pausoa lehian irekitzea izango da eta horren ondoren adjudikazioa egitea. Lanak aurten hasi eta aurten amaitzea nahi da. Proiektu honen aurrekontua 184.370 eurokoa da eta Udalak horietatik 49.145 euro jarriko ditu eta gainontzekoa Eusko Jaurlaritzak.

Baina ez da aipatutako kopurua Udalak egingo duen inbertsio bakarra aurten. Izan ere, Izartu programaren baitan egingo diren proiektu guztien erredakzioen gastua ere aurtengo aurrekontuetan sartuko da. Horrela, beste 70.000 euro jarriko ditu Udalak. Guztira, beraz, Zizurkilgo Udalak egingo dituen inbertsioak Izartu programaren baitan 119.145 eurokoa izango da.

GIZARTEA ▶

Eskualdeko lau preso bihartik 'txapeoan'

Euskal presoak egiten ari diren borrokaldiaren baitan, bihar eskualdeko lau preso hasiko dira itxialdian. Tolosara bizitzera etorritako Iñigo Otazua, Julen eta Pello Zelarain billabonatarrek eta Ander Geresta zizurkildarra bosgarren txandan izango dira, hamar egunetan ziegatik atera gabe.

ANOETA ▶

Guraso Eskolaren bigarren saioa datorren astean

Anoetako eta Irurako ikastolek antolatuta eta bi udalen laguntzarekin, Guraso Eskolaren bigarren saioa egingo da datorren astean Anoetako Ikastolan. Astelehenean, hilak 14, 15:00etatik 17:00etara, Haur Hezkuntza eta LH3 bitarteko ikasleen gurasoentzako izango da hitzordua eta saioa euskaraz izango da. Asteartean, hilak 15, LH4 eta DBH4 bitarteko ikasleentzako gurasoentzako izango da hitzordua. Saioa euskaraz eta gazteleraz izango da eta 15:00etatik 17:00etara.

HERNIALDE ▶

Anoetako Ikastolaren aurkezpena

Anoetako Ikastolak, matrikulazioaren kanpainaren baitan, ikastetxearen proiektua aurkeztuko du Hernialdeko udaletxean. Aurkezpena herriko 2 eta 3 urteko haurren gurasoentzako zuzenduta dago eta etzi izango da, 19:00etan.

ASTEASU ▶

Santa eskeko dirua dispertsioaren gastuentzako

Asteasuko presoen aldeko mugimenduak eskertu nahi du Santa eskean aritu zirenen herritarrek emandako laguntza. 900 euro jaso zituzten eta diru hori guztia dispertsioak eragiten dituen gastuetarako bideratuko da. Bestalde, deialdia egiten diete herritarrei antolatutako ekitaldietan aurrerantzean ere parte hartzera.



PELLO ERROTA
herri ikastetxea
ASTEASU -Elizmendi z/g

- Herrian bertan
- Euskalduna
- Anitza
- Baliabidez eta metodologiak gaurkotua

Tel./faxa: 943 69 22 13 Posta elektronikoa: 012017aa@hezkuntza.net
Haur Hezkuntza: 943 69 29 25 Web orria: www.euskalnet.net/pelloerrotta



- Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta D.B.H.
- Kalitatezko hezkuntza euskalduna
- Eguneratua eta irekia
- Denen artean bultzatua eta zuzendua

MATRIKULA EPEA:
Otsailaren 14tik 25era

Matrikulazio Ordutegia:
© 943 65 46 13-65 29 32
9:00-13:00 - 15:00-18:00
anoeta@ikastola.net



ALEGIA ▶ GIZARTEA

Juan Joxe Agirre fraide beneditarra kargurik gabe aske utzi zuten atzo

Goizean atxilotu eta galdeketa egin zioten Mikel 'Antza' ETAko buruzagiarekin zerikusia zuelakoan

ARKAITZ APALATEGI/
GOIERRIKO HITZA

Juan Joxe Agirre fraide beneditar alegiarra inongo kargurik gabe aske geratu zen atzo arratsaldean, hainbat orduz Lazkaoko beneditarren komentuan goizetik Guardia Zibilak atxilotu ostean.

Goizeko 09:30ak aldera, komentuko atean bi gizon zain aurkitu omen zituen Agirrek. Poliziak zirela eta bera atxilotzeko agindua zutela esan zioten. Frantziako Levert epaileak eman zuen atxilotzeko agindua, ETArekin zerikusia zuelakoan. Agirrek 75 urte ditu eta beneditarren liburutegiko arduraduna da. Agirrekin batera, Marcel Etxandi fraidea ere atxilotu zuen Frantziako poliziak Lapurdiko Ahurti herrian.

Bertaratutako jendeak azaldu zigunez, 15 bat guardia zibil sartu ziren, baina gehienek alde egin eta lau besterik ez ziren geratu. Agirrek zaintzen duen liburutegia arakatu zuten, baina itxuraz ez zuten ezer ez eraman. 14:30ak aldera ofiziko abokatua iritsi eta komentuan bertan hartu zioten deklarazioa, hamar bat minutuz. Arratsaldeko 16:00ak aldera epaileak Juan Joxe Agirre aske utzea erabaki zuen, kargurik gabe.

Guardia zibilek Mikel Albisuri atzemandako agiritan bere izena agertzen zela esan zioten fraide beneditarrari. Aske geratu ondoren, Agirrek adierazi zuenez, ETAko zuzendaritzako kideak ezagutzen ote zituen eta haiek harremanik ote zuen galdetu zioten Guardia zibilek behin eta berriz. Berak ezetz erantzun zuen. Galdeketa bukatutakoan, Agirrek paperak eskatu zizkien, liburutegiko artxiboan gordetzeko. Guardia zibilek ezetz erantzun zioten, sumarioa isilpean baitago.

Fraide beneditarrak bertara hurbildutako politikari, kazetari eta herritarrek agurtu zituen aske utzi zutenean. Irribarretsu agertu zen, nahiz eta aurretik une estuak igaro zituela aitortu. Atxilotzera joan zitzaizkionean, zorabio txiki batek ere eman omen zion, urduritasuna zela eta. Guardia zibilek liburutegi guztia goitik behera miatu zutela ere esan zuen Agirrek, baina bere ustetan ez omen zuten ezer eraman.

Agirrek adierazi zuenez, ba omen zuen honelako zerbait gertatu zitekeenaren susmoa. Izan ere, liburutegi hau Euskal Herriko mugimendu politikoen artxibategi handienetakoa da, bereziki mugimendu abertzaleen ingurukoa. Azken 30 urteetan, mota guztietako dokumentu, aldizkari, txosten eta kartelak ditu gordeta. Euskal Herriatik zein atzerritik bisitari asko jasotzen ditu liburutegiak, gehienbat unibertsitate ikerketak egiteko material bila.

Agirrerri babesa erakusteko asmoz jende ugari gerturatu zen konbentura. Bertan ziren Dionisio Amundarain idazle beneditarra, Jose Juan Gonzalez de Txabarri, Gipuzkoako ahaldua nagusia, Joseba Egibar GBBko presidentea, Joseba Permach eta Juan Joxe Petriko-rena Batasunako kideak eta Rafa Diez LABeko idazkari nagusia.

Guztiek azpimarratu nahi izan zuten Juan Joxe Agirrek egindako lana. Honez gain, operazio honek zentzurik ez duela salatu nahi izan zuten. Ezker abertzaleko ordezkariak gogoan izan zuten asteartean atxilotu zuten Anitz Eskisabel lazkaotarra.



Juan Joxe Agirre aske utzi ondoren, Gonzalez de Txabarri eta Egibarrekin batera. ARKAITZ APALATEGI/GOIERRIKO HITZA



Agirre, Amundarain eta Permachekin. A. APALATEGI/GOIERRIKO HITZA

LASKORAIN IKASTOLA

'Kalitateko Heziketa Euskalduna eta cleanitza'

www.laskorainikastola.net

Euskaraz bizi

tolosa@ikastola.net
Tel.: 943 697 122

Irurako Ikastola

(2-8 URTE)

'HAZI ETA HEZI HERRIAN BERTAN'

San Migel, 5 • 20271 IRURRA
Tel.: 943 69 43 74 • irura@ikastola.net

Euskadi

SANTA LUZI HEZKUNTZA GUNEA

KALITATEZKO D EREDUA

SAMANIEGO IKASTETXEA

OR XE

✓ HAUR HEZKUNTZA
✓ LEHEN HEZKUNTZA

✓ DBH
✓ BATXILERGOAK
✓ ZIG gela eta LAN HASTAPEN EGOKITUA

943 65 10 63 943 65 13 87

BALIARRAIN ▶

Mus, tute eta
punttu txapelketa
hastear

Baliarraingo Harkaitz kultur elkarteak mus, tute eta punttu txapelketa antolatuta ditu. Partidak datozen asteburuetatik jokatu dira. Bihar hasiko da txapelketa Mus partidarekin 16:00etan izango dena. Bigarren saioa tuteari dagokio eta astebebe otsailaren 20an izango da ordu berberetan. Azken asteburuetako partidak, aldiz, punttu jokorenak izango dira otsailaren 27an. Partaide bakoitzak 6 euro ordaindu beharko ditu. Sariak ere ez dira faltako txapelketa honetan. Hiru egunetan berdinak izango dira eta lehen sei sailkatuen artean banatuko dira. Bikote irabazleak arkume bat, bi txanpain botila eta bi bonboi kaxa eskuratuko ditu. Zilarrezko postuan geratzen denarentzat arkume bat eta bi txanpain botila banatuko dira. Hirugarren postuentzat, berriz, bi oilasko eta bi txanpain botila banatuko dira. Laugarrenentzat, bi txuleta eta bi txanpain botila. Bi untxi eta bi ardo botila bosgarrenari eta bi bonboi kaxa azkenari.

ALEGIA ▶

Etxebizitzen
eskaera lantzeko
enpresa

Alegiako Udalak etxebizitza politika aztertzerako garaian, ezinbestekoa ikusi du herrian etxebizitzaren beharra eta eskaria ezagutzea. Hau guduzia egiteko Udalak enpresa berezitu bat kontratatu du. Enpresa honek galdetegi baten bitartez jasoko du informazio guztia. Gai honek eragiten dion herritar guztiek azterketa honetan parte hartzea deitu du Udalak eta horretarako datorren asteazkena, otsailaren 16, baino lehen udaletxean izena emateko aukera izango da.

BERROBI ▶ KULTURA

Aurtengo aldaketak
emaitza onak uzten
ari dira liburutegian

Pasa den urtean baino mailegu gutxiago egon badira ere kalitatean eta irakurle kopuruan gora egin du 2004an

IÑIGO TERRADILLOS

Duela urte gutxi zabaldu zen eta egun Berrobiko liburutegia herriko gaztetxoentzat beharrezko topaleku bihurtu da. Bertan elkartzen dira astearte eta ostegun arratsaldeetan, eskolatik irten eta gero, irakurri, edo Internet erabiltzera, besteak beste.

Liburutegiko arduraduna gustura dago 2004 urteak utzitako emaitzekin, eta mailegu aldetik jaitziera txiki bat egon bada ere, kalitatean hobetu dela eta irakurle kopurua igo dela azaldu du. Gainera, Euskadiko liburutegi sistema nazionala osatzen duten liburutegien sarea on line proiektuaren barruan sartu berri da Berrobiko liburutegia eta honek abantaila handiak ekarriko dizkie erabiltzaileei, bai liburuak aurkitzerakoan, bai eta liburutegi desberdinen artean egongo den elkarlanak emango duen erraztasunagatik ere.

Zenbait aldaketa

Aurtengo ikasturtean zenbait aldaketa egin dira Berrobiko liburutegian; batetik, orain astearte eta ostegun arratsaldeetan irekitzen da eta lehen asteartean bai, baina bigarren eguna ostirala izaten zen. «Jende gutxiago joaten zela ikusten genuen eta ostegunetan irekitzea erabaki genuen ostiralaren ordez, eta asmatu dugula iruditzen zait, bi egunetan haur eta gazte ugari izaten baitira orain», dio arduradunak.

Lehen liburu bat eskatu eta



Gaztetxo batzuk liburuak irakurtzen Berrobiko liburutegian. I.TERRADILLOS

2004KO DATUAK ▶

Erabiltzaileak	Kopurua	Erdaraz	62	Bazkideak	Kopurua
Helduak	812	Denera	330	Berriak	13
Haurrak	1.242			Guztira	107
Guztira	2.054				
Sexua	Kopurua	Fondoa	Kopurua		
Gizonezkoak	857	Euskaraz	1.617		
Emakumezkoak	1.197	Erdaraz	151		
		Guztira	1.768		
Maileguak	Kopurua				
Euskaraz	268				

ez bazegoen beste lekuren bategan bilatu beharra izaten, baina irailetik aurrera eskaera zerbitzua jarri dute martxan; «horrela, liburuak ez badugu eskatu eta hurrengo egunerako ekarri ahal dugu orain».

Egun, helduentzako txoko berezia prestatzen ari dira, eta bertan egunkari eta aldizkari desberdinak irakurri ahal izango dituzte hauek txikiekin doazenean.

Hainbat ekitaldi antolatzen dituzte Berrobiko liburutegian; Haur Liburuaren Eguna, Liburu Eguna, literatur lehiaketa, ipuin kontaketa saioak, marrazkigintza edo xake ikastaroa besteak beste eta parte-hartzea ikusirik orain arteko egitarauarekin jarraitzeko asmoa dute.

Sorpresarik ere izango da aurtun. Zer ote? Liburuaren artean aurkituko duzu erantzuna.

INKESTA ▶ ZER
EGITEN DUZU
LIBURUTEGIAN?PERE ARRATIBEL
9 URTE

«Etxeko lanak egitera etortzen naiz. Baita liburuak maileguan hartzera ere».

JULEN IZAGIRRE
8 URTE

«Etxean baino nahiago dut eskolan bidalitako lanak liburutegian gainerako ikaskideekin batera egin».

MIKEL ZUBIRIA
11 URTE

«Liburuak irakurtzea asko gustatzen zait eta bertan ez bada etxera eramaten ditut han irakurtzeko».

ION ELUSTONDO
10 URTE

«Irakurri eta etxeko lanak egitera ordenagailua erabiltzera etortzen naiz».

IMANOL ARRATIBEL
7 URTE

«Irakurtzea ez dut gehiegi atsegin, baina eskolan eskatutakoa irakurtzera etortzen naiz».

AITOR ERRAUSKIN
7 URTE

«Irakurtzea gustatzen zait. Egiten diren ekintzak ere oso interesgarriak dira».

XABI ZUBIRIA
8 URTE

«Normalean etxeko lanak egitera etortzen gara eskolako lagunak liburutegira».

JOANA ORTIZ
12 URTE

«Liburutegian antolatzen diren ekintzetan parte hartu ohi dut ahal dudanean».

Mahala
BASERRIKO PRODUKTU NATURALAK

Jogurta

Mahala baserría - 20491 LEABURU
Tel.-Faxa: 943 673 499
Tel. Mug.: 689 805 633

ARAMBURU

Salgai (Ibarra), Pisu zoragamia Euskal Herria kalean, Garaie ibia aukeran.

Salgai (Tolosa), Pisu igogailuarekin Laramendi kalean, 112 m². Bemtua.

Salgai (Tolosa), Pisu handia Gorosabel 40ean, Garaie aukeran

Salgai (Tolosa), Pisu igogailuarekin Laramendi kalean, 30.000.000 pta

Salgai (Tolosa), Lokal komertziala San Frantzisko pasealekuan 85m².

Alokatzeko (Tolosa), Lokal komertziala Errementari kalean,

Alokatzeko (Tolosa), Garaie Pedro de Tolosa kalean.

943 65 17 13 / 677 46 09 16

hilberriak ▶ eshelak hartzen dira: 19:00ak arte ▶ 943 65 56 95 ▶ tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

Lehenengo urtemuga

Antonio Olazabal Peñagarikano
(2004ko otsailaren 2an hil zen, 59 urte zituela)

Urtebete, urtebete pasa da zu joan zinenetik. Zu joan? Joan al zinen? Eta txantxangorria? Eguneroko bisitatzen gaituen txantxangorria? Lehen gizon on bat orain txori eder bat beti gurekin eta gu zurekin.

M. Karmen, Asier, Alaitz eta Eneko, Enara eta Naia; eta gainerako ahaideak

Bihar igandea, hilak 13, goizeko 10:30ean San Bartolome parrokian egingo

IBARRAN, 2005eko otsailaren 12an urtemuga mezara etor zaitzela eskatzen dizuegu. Aidez aurretik, eskerririk asko.

LEITZA ▶ UDALA

la 2,5 milioi euroko aurrekontuak onartu dituzte 2005erako

Parkea, haurtzaindegiko jangela, zaborren edukinontzi berriak eta bestelako inbertsioak egiteko asmoa dute



Besteak beste, Erleta eskolaren ondoko parkea erabat berritzeko asmotan dira udaltek. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

2005. urte honetarako, zehazki 2.461.856,29 euroko aurrekontuak, lehengo 409.618.421 pezeta, alegia, onartu berri ditu Leitzako Udalak.

Hil honen 3an burututako aparteko batzar berezian hartu zuen erabaki hori, Aralar eta EAko ordezkarien aldeko bozkek. Larrain herri plataformak aurrekontu horien prestaketa parte hartu bazuen ere, jakina da ez duela bozkarik mahai horretan, legez kanpo utzi zutelako, eta ondorioz beste behin ere, ez zuen bozketan parte hartzerik izan. UPN taldeko kideek, berriz, aurrekontuei ezezkia eman zieten, hain zuzen ere «horiek egiterakoan ez dugu parte hartu, Larrain hor dagoelako. Horrengatik ez ditugu ontzat hartzen aurkeztutako aurrekontu hauek», esanez.

Jakina da, batzordeez gain, kontseiluak egiten direla udalako gai buruzko informazioa eskuratu eta eztabaidatzeko.

Besteak beste, beste edozein herritar bezala, horietara Larrain-eko kideak ere joaten dira. Bada, hori aitzaki hartuta, kontseiluak eratu zituztenetik, UPNko kideek ez dute parterik hartzen, normalean, izan ere han argitu zuten «herritarren batek espreski» eskatzen badiete, salbuespeneko kasutan, bai joaten omen dira.

Normaltasun politiko ezaren ezaugarri horiek erabat hor izanik ere, azkenik batzarrik Larrain-ek, Aralar-ek eta EA-k prestatu eta udal-batzari ere halaxe aurkeztuak izan ziren aurrekontuak onartu zituen.

Aurtengo egitasmoak

Horrela bada, inbertsioetan berezigarri izan daitekeen egitasmoetako bat Erleta eskolaren ondoko parkea izango dela adierazi zuten, hau berritzeko egitasmoa dutelarik, honetara 60.000 euro bideratuz; haur-eskolan jangela egin eta hornituko dute, 15.040 euroekin; hi-

rigintzari dagokionez, babes ofizialeko etxebizitzak egiteko lur-erosketarako jarduerari ekinen diete, ia 25.000 euro horretara bideratuz; eta Ateka Beltza etxerako proiektua erabaki bitartean, moldaketa itxietarako diru partida bat eta proiektua beraren erredakziorako ere 15,2 mila euro bideratuko dituzte; zaborrentzat eduki-ontziak erosteko partida ere jasota geratu da. Besteak beste, inbertsio ez-ohikoetarako 300 mila euro inguruko aurrekontua dute eskuartean.

Nabarmendu nahi izan zuten, onartutako kontu horietan, gastuen zatirik handiena ohiko gastu eta zerbitzuek eramanen omen dute, dela gizarte zerbitzu, euskara mankomunitateetako kuotek, dela zabor-bilketak, dela bideen konponketek, dela udal funtzionamenduaren mantenimenduak... Guztira 1.250.061,97 euro dira ohiko gastuetara bideratzeko, aurrekontu osoaren % 87,93a. Horrek, ziotenez, asko baldintzatzen omen du udal bat, inbertsio bereziak egiteko garaian.

Noski, inbertsioek ordaindu beharrak ere izaten dituzte eta, aurrekontuen bigarren atala diru-sarrerari dagokiena izaten da. Horrela kasu honetan, «gastuak planteiatzeko garaian, horien finantzaketa nola egin ere aurreikusitako behar da, aurrekontu orekatu bat lortzeko», argitu zuten, eta horixe izan omen dute lehentasunezko ezaugarritzat, aurrekontu hauek prestatzeko garaian. Horrela zerga eta tasen bidezko ohiko diru iturriez gain, aprobetxamenduetatik jasotakoa eta erakunde publiko desberdinetatik lortuko dituzten diru laguntzak dira kito egiteko erabiliko dituzten iturriak.

LEITZA ▶ KIROLA



Josu Zestau ariko da aholkulari lanetan gaurko partiduan. J. ASTIBIA

Bidezarrarekin jokatzera Antsoainera doa Aurrera

Aurreko asteburukoa berriz, bertan behera gelditu zena, aurrerago berreskuratuko dute

J. ASTIBIA

Gaur arratsaldean, 15:45etan da jokatzeko Aurrera futbol taldea. Oraingoan Antsoainen egin behar du, bertako Bidezarra taldearen aurka.

Talde hau sailkapenean erdialdeko lekuetan kokatuta dago eta talde oso indartsua da, batez ere etxean jokatzeko duenean, hala adierazi zutena atzokoan behinik behin Aurrera taldeko zuzendaritzako kideek: «Taldea hau oso jokalaria indartsuz osatuta dago, eta taldea egiten dute, ahaleginak egiten dituen, baina etxean are indartsuagoa dena. Beraz, guk tentuz jokatu behar dugu, beraien zelaira goaz eta», zioten.

Bestalde, jakitera eman zuten, Salazar entrenatzaileak ez omen du bertan egotetik izanen, Madrilen (Espainia) ikastaro bat egiten ari delako. Partida igandera atzeratzen saiatu badira ere, federazioetik ez diote onartu. Ondorioz, Josu Zestau leitzarra, taldeko bigarren entrenatzailea, ariko aurreratarrak zuzentzen, aholkularitza eta bideratze la-

nak eginez. Gaztea izan arren, jokalarien jirakoa da bera ere, astero-astero hortxe aritzen da bere lekuan dagozkion ardurei aurre eginez eta jokalariek eta berak, elkar oso ongi ezagutzen dute.

Arbitroen plantoa

Aurreko asteburuan Huarteren aurka Arkixkilen jokatu behar zuten partiduak, ordea, halaxe gelditu zen, jokatzeko, Lurraldeko mailako sail guztietan (lau talde dira) arbitratze lanak bertan behera utzi baitzituzten arbitroek. Aurrerago berreskuratuko omen dute.

Ekimena, bizpahiru talderen jokatzeko modu gogorra salatzen asmoz egin zuten epaileek. Talde horietan, hainbat jokalarik zigortuta egon arren, isunak ezarri arren, «zuzendaritzarik gabeko taldeak» omen dira eta «ardura hartuko duen inor ez» omen dutenez, «ez diete deusek ere axola», argitu zioten HITZARI, eta behingoz federazioak talde hauengan erabakiak har ditzan esijitu zuten.

iragarki laburrak ▶

Telefonistak. Harreragileak. Plaza libreak erakunde publikoetarako. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Ostalaritza. Sukaldari laguntzaileak, sukaldariak, zerbitzariak. Plaza libreak: eskolak, egoitzak, Eusko

Jaurilaritza. 943 65 01 93 telefonoa.
Eraikuntza. Igeltseroak, peoiak. Plaza finkoak Gipuzkoako udalaren Informazioa doan. 943 65 01 93.
Gidariak. Plaza libreak: eskolak, Eusko Jaurilaritza, Aldundia.

Informazioa doan. 943 65 01 93.
Haur Hezkuntza. 1.200 plaza. Sarbidea libre. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Administrazio laguntzaileak. Laster sarrerak udal hauetan:

Hernani, Usurbil, Irun, Beasain, Aitzo, Bergara, Zorralea, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Anoeta. Informazioa doan 943 65 01 93.
Mantenua. Elektrikariak, iturginak, soldatzaileak, igeltseroak. Plaza

libreak: erakunde publikoak. Informazioa doan. 943 65 01 93.
Peoiak, elektrikariak, iturginak, soldatzaileak, igeltseroak. Plaza libreak erakunde publikoetarako. 943 65 01 93.

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko otsailaren 12, larunbata ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Alaitzasketa, Adura, Abotzu, Aegia, Aizka, Albia, Amerieta, Aroeta, Balaran, Beasanta, Berastegi, Edoain, Herrialde, Ibarra, Itzalegi, Itza, Larrami, Leizola, Lizartza, Orenain, Orma, Tolosa, Vilabona, Zuzuki
besterik: Leizalaldeko Euskara Batzordea

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jauriaritza,
Kultura Saila

943
ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

12

hotzena

10

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA
ARALARREN

Guardetxe: bai
Albi: bai

Pagomari: bai
Igaratza: bai

943
ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

AGENDA ▶

DEIALDIAK

Baliarrain. Harkaitz elkarrekin mus txapelketa antolatu du biharko. Parte hartzaile bakoitzak 6 euro jarri beharko ditu, bikoteko 12 euro beraz.

Tolosa. Ehuza txiki txapelketa txakurrarekin 14:30ean Monteskuo aterpean. Bestalde, bazkideei aurtengo kuota ordaindu behar dutela gogorazi nahi diete.

Tolosa. Atzeritarren Legearen erregularizazioari buruzko bilera izango da Irazki kulturazindun elkarrekin antolatuta, bere egoitzan (Zentro sozio-kulturala, CIT) 17:00etan.

Tolosa. Tolosaldeko Eskolarteko Xake Txapelketa elkarrekin egoitzan (plaza Berria 1, behe) bihar 11:00etatik 13:00etara.

Tolosa. Poca-Tripa txaranga eta Txilaba Elkarrekin konpartsa lurreamendi Egoitzara joango dira bihar goizean.

Tolosa. Iturriza jubilatuen elkarrekin biharko dantzaldia antolatu du Jesus musikariarekin eta Txilaba konpartsaekin.

Tolosa. Isabel Mujikaren olio-pinturak Lanbroan.

ZINEMA

Tolosa. *Closer.* Leidorren 19:30ean eta 22:30ean.

Peatonalizazioaz galdeketa

ALEGIA ▶ San Joan eta Bidebarrieta kaleetako bizilagunek gaur 17:00etatik 20:30era eta bihar 10:30etik 13:30era bozkatu dezakete

NOELIA LATABURU

Asteburu honetan Alegiako San Joan kaleko eta Bidebarrietako biztanle eta komertzioek San Joan kalea oinezko bihurtuko den ala ez erabakiko dute. Herriko plazan karpas moduko mahaia ezarri da eta bi egun hauetan zehar pasa daitezke alegiarrak euren botoa ematera. Gaur, arratsaldeko 17:00etatik 20:30era izango da zabalik eta bihar goizeko 10:30etik 13:30era. Behin bozketa mahaia ixten denean, bihar, kontaketa publikoa egingo da plazan bertan.

Herri galdeketa parte hartuko duten guztiek jadanik bozketa papera eskuratu dute euren etxeetan. Halaber, bete beharreko arauen eta prozeduren berri izan dute aurretik herriari zabaldu den informazioari esker.

Kanpaina gogorra

Aurreko egunetan ere asteburu honetan bozkatu ezingo duten herritarrek aukera izan dute euren baiezko edo ezezko botoa emateko udaletxeko bulegoetan.

Herri galdeketa antolatu



San Joan kalea oinezko bilaka daiteke aurki, galdeketa hori erabakitzen badute bizilagunek. NOELIA LATABURU

duen batzordeak kanpaina gogorra burutu du aurreko aste hauetan, informazio guztia biztanleei gerturatu helburuz. Antolaketa ere bikaina izan da. Lehen egin beharra informazioa zabaltzea izan zen. Horretarako buzoiketa bidez informazio orriak eta erakusleihoetan karteltxoak jarri galdeketa nontik norakoak azaldu zituzten San Joan eta Bidebarrietan barrena. Honekin batera, panelak jarri zituzten pla-

zan eta megafonia ere erabili zen.

Honen ostean, herritarrei euren iritzia emateko aukera eman zitzaion. Otsailaren lehen bi egunetan epe bat zabaldu zuten nahi izan zuen guztiari herri galdeketa gainera iritzia denoi luzatu ahal izateko. Bilketa lan hau udal buzoioaren egin zen. Sistemaren, kanpainaren, iritzia eta bestelako ardurak Patxi Renobales, Felix Irarustabarrena eta Iñigo Irazus-

tabarrena alegiarren esku egon da.

Galdeketa emaitzak, beraz, igandean bertan emango dira jakitera. Erantzuna baiezkoa izango balitz obrak hasiko lirake San Joan kalean, baina egunak oraindik finkatzeaz daude. Dena den, bihar arte ez dago ezer argi, komertzioa asotako jabeek ez baitute kalea oinezko izaterik nahi. Bihar arte itxaron beharko da, beraz, emaitzaren berri izateko.

AGURRAK ▶

Urtebetetzea, jaiotza, ezkontza, jaunartzea, urrezko etzeiak, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZAren egoitzara; ekarri argazkia



URTE ASKOAN

Iñaki Larrarte (Izakun) eta Ramon Arsuaga (Ibarra). Osteguneko partez, aupa mutilak eta jarraitu zuen indarrak probatzen. On egin dizuela!! Zorionak familia guztiaren partez.



URTE ASKOAN

Aupa Ainhoa!
Gaur 9 urte.
Zorionak denon partez.



URTE ASKOAN

Aratz Irazustabarrena (Alegia). 7 urte.
Zorionak.



MANUEL

Bada urtebete joan zinela gure artekin, baina gure bihotzean jarraitzen duzu bizirik. Muxu bat.
Meza: igandean 12:00etan San Frantzisko elizan.